



## **HITZARMENA**

## **CONVENIO**

**ENTRE**

**ENKARTERRIKO UDAL  
MANKOMUNITATEA**

**LA MANCOMUNIDAD DE  
MUNICIPIOS DE LAS  
ENCARTACIONES**

**ETA**

**Y**

**BILBAO BIZKAIA UR  
PARTZUERGOAREN ARTEKOA**

**CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO-  
BIZKAIA**

**HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK  
BILTZEAGATIKO TASA FAKTURATU  
ETA KOBRATZEKO KUDEAKETA  
EGITEKO**

**PARA LA GESTIÓN DE LA FACTURACIÓN  
Y COBRO DE LA TASA DE RECOGIDA DE  
RESIDUOS SOLIDOS URBANOS.**



Bilbon, 2016ko martxoaren 17an.

En Bilbao a 17 de marzo de 2016

### **BATU DIRA**

ESTHER LASA SEISDEDOS andrea, Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateko presidentea.  
eta  
RICARDO BARKALA ZUMELZU jauna, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO presidentea

### **JARDUN DUTE**

Lehenengoak, Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateko presidente gisa, eta haren ordezkartzan, hitzarmen hau sinatu ahal izateko 2015eko abenduaren 22ko erabaki bidez emandako ahalordearekin.

Bigarrenak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren presidente gisa, eta haren ordezkartzan, hitzarmen hau sinatzeko Zuzendaritza Batzordeak 2016ko martxoaren 1ean emandako ahalordearekin.

Jardun duten biek, aipatutako erakundeen ordezkari gisa, hitzarmen hau egiteko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta, horretarako, honakoa:

### **ADIERAZI DUTE**

#### **I.- LEHENENGOA.**

Enkarterriko Udalerrien Mankomunitatea (hemendik aurrera, Mankomunitatea) Artzentales, Karrantza, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla udalerriek osatutako tokiko erakundea da, berak ezarritako udal eskumeneko zerbitzuak modu bateratuan kudeatu eta emateko.

#### **II.- BIGARRENA.**

Mankomunitatearen helburuetako bat da hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua eman, eta zerbitzu horri jarraipena egitea.

Horretarako, Mankomunitateak zerbitzu horren tasa dauka ezarrita, dagokion Ordenantzaren bidez, zeina onartzeko eta aldatzeko eskumena baitauka.

### **REUNIDOS**

D<sup>a</sup>. ESTHER LASA SEISDEDOS, Presidenta de la Mancomunidad de municipios de Las Encartaciones y  
D. RICARDO BARKALA ZUMELZU, Presidente del CONSORCIO DE AGUAS DE BILBAO-BIZKAIA

### **INTERVIENEN**

La primera en su calidad de Presidenta de la Mancomunidad de municipios de Las Encartaciones y en su representación, autorizada para suscribir el presente convenio por acuerdo de fecha 22 de diciembre de 2015.

El segundo en su calidad de Presidente del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia y en su representación, autorizado para suscribir el presente convenio por acuerdo del Comité Directivo de fecha 22 de diciembre de 2015.

Los intervinientes, en la representación que actúan, se reconocen recíprocamente capacidad legal suficiente para celebrar este convenio y a tal efecto

### **EXPONEN**

#### **I.- PRIMERO.**

La Mancomunidad de municipios de Las Encartaciones (en adelante, la Mancomunidad) es un ente local constituido actualmente por los municipios de Artzentales, Karrantza, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz y Zalla para la gestión y prestación conjunta de los servicios de la competencia municipal que ella establece.

#### **II.- SEGUNDO.**

Dentro de los fines de la Mancomunidad se encuentra la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos, así como el seguimiento constante del mismo.

Para el cumplimiento del fin antedicho, la Mancomunidad tiene establecida la tasa correspondiente a dicho servicio en la correspondiente Ordenanza, cuya aprobación y modificación es de su competencia.



### III.- HIRUGARRENA.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (aurrerantzean, Partzuergoa) tokiko erakundea da, honakoak barne hartzen dituena: Bizkaiko Lurralde Historikoko laurogei udalerri, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza; bere egiteko nagusia edateko ura hornitzea eta hondakin uren saneamendua gauzatzea da, Partzuergoa osatzen duten udalerrietako lurralde-eremuan.

### IV.- LAUGARRENA.

Partzuergoak toki mailako beste zerbitzu publiko batzuk ere ematen ditu; esaterako, zabor eta estolderia tasak likidatu eta kobratzea, hala eskatzen duten udalerriei.

### V.- BOSGARRENA.

Mankomunitatearen interesekoa da Partzuergoak hiri hondakin solidoen tasa likidatu eta kobratzea borondatezko epealdian, eta horretarako eskaera egin dio, hain zuzen ere, Partzuergoari.

Helburu horrekin, esku hartzen duten alderdiek honako hitzarmena sinatzea erabaki dute

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.

Partzuergoa arduratuko da Mankomunitateak ezarritako hiri hondakin solidoen bilketa-zerbitzua emateari dagokion tasa likidatu eta kobratzeaz. Partzuergoak hiru hilerik behin likidatuko dizkio bildutako zenbatekoak Mankomunitateari.

### BIGARRENA

Tasa hori likidatu eta kobratzearen inguruko kudeaketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kudeaketa eskuordetu dioten Partzuergoko gainerako udalerriei aplikatzen zaizkien irizpide eta baldintza berberetan egingo da; hau da:

### III.- TERCERO.

El Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia (en adelante, el Consorcio) es un ente local constituido por ochenta municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, la Diputación Foral y el Gobierno Vasco, cuya misión primordial es la prestación de los servicios de abastecimiento de agua potable y de saneamiento de las residuales en el ámbito territorial de los municipios que lo componen.

### IV.- CUARTO.

El Consorcio presta otros servicios públicos locales, como es el caso de la liquidación y cobro de la tasa de basuras y alcantarillado a los municipios que así lo solicitan.

### V.- QUINTO.

Es interés de la Mancomunidad que el Consorcio realice la liquidación y cobro en período voluntario de la tasa del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos que tiene establecida, habiéndose dirigido al Consorcio a tal efecto.

Con tal finalidad, las partes intervinientes acuerdan suscribir el presente convenio con arreglo a las siguientes

## CLÁUSULAS.

### PRIMERA.

El Consorcio realizará la liquidación y cobro de la tasa por la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos establecida por la Mancomunidad. El Consorcio liquidará trimestralmente a la Mancomunidad las cantidades recaudadas

### SEGUNDA

La gestión de la liquidación y cobro de la tasa se realizará de acuerdo a los mismos criterios y condiciones en las que se realiza con el resto de ayuntamientos consorciados que han delegado la gestión de la misma en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia y, que actualmente se resumen en:



- Tasa horri dagokion errolda ur-hornikuntzako bezeroen fitxategitik eskuratuko da; hala ere, fitxategi hori behar bezala osatuko da, gerta litezkeen kasu bereziei erantzun egokia eman ahal izateko (Hiri Hondakin Solidoen zerbitzua eman arren ur hornikuntzarik ez duten eremu geografikoak, etab.).

- Likidatu beharreko epealdiei dagokienez, zabor-tasaren epealdia ur hornikuntza eta saneamendu tasa kudeatzeko erabiltzen den bera izango da; hau da, hiruhileko ez naturalen araberakoa, kontagailuen irakurketa-data oinarri hartuta.

- Likidazioan agertzen diren kontzeptuei ur hornikuntza eta saneamendu tasan agertzen direnen tratamendu bera emango zaie, hala nola, ordainketaren titularra, kobratzeko modua, eta, oro har, komunikazio guztiak. Horretarako, Ur Partzuergoak bezeroei igortzen dien faktura erabiliko da eredu moduan, bertan behar bezala identifikatzen baitira udal-tasei dagozkien zenbatekoak, eta, beraz, baita Partzuergoarekin lotutako tasei dagozkienak ere.

- Ur Partzuergoak kobratzeko bide guztiak agortuko ditu, soilik zaborrei dagozkien ordainagiriak direnean salbu; azken horiek, izan ere, itzuli egiten dira urtebete igarota kobratu ezin izan direnean. Kobratzeke dagoena ur eta zaborren ordainagiria izanez gero, tasa bi-biak batera biltzeko saiakera egingo da.

## **HIRUGARRENA**

Mankomunitateak dagokion tasari buruzko zergadunen errolda igorriko dio Partzuergoari, 2016ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Mankomunitateak onartutako hiri hondakin solidoen bilketa-zerbitzuengatik tasaren Ordenantzari egindako aldaketak, edota zergadunen erroldan gauzatzen direnak, Partzuergoari jakinarazi beharko dizkio Mankomunitateak.

- El padrón de la tasa estará configurado por el fichero de clientes del suministro de agua; completándose el mismo para dar solución a casuísticas singulares que pudieran producirse (áreas geográficas en la que se presta el servicio de RSU, sin abastecimiento de agua, etc...).

- Los periodos a liquidar por la tasa de basuras se corresponderán con los que resulten de la gestión de las tasas de abastecimiento y saneamiento de agua, por trimestres no naturales, en función de las fechas en las que se ha tomado lectura del contador.

- Todos los conceptos que figuren en la liquidación tendrán igual tratamiento que los relacionados con las tasas de agua y saneamiento, en lo referente al titular de abono, forma de cobro y comunicaciones en general; utilizándose para ello la factura que emite el Consorcio de Aguas a sus clientes, en la que se muestran adecuadamente identificados los importes correspondientes a las tasas municipales y a las tasas relacionadas con servicios del Consorcio.

- El Consorcio de Aguas agotará las vías de cobro, excepto cuando se trate de recibos exclusivamente de basura, los cuales serán devueltos al resultar fallida su cobranza durante un año. En el caso de resultar pendiente un recibo de agua y basura, se intentará su recaudación conjunta.

## **TERCERA**

Con anterioridad al día 31 de enero de 2016 la Mancomunidad entregará al Consorcio el padrón de contribuyentes de la citada tasa.

Las modificaciones de la Ordenanza de la tasa por la prestación del servicio de recogida de residuos sólidos que sean aprobadas por la Mancomunidad, así como las que se produzcan en el padrón de contribuyentes serán notificadas por la Mancomunidad al Consorcio.



## **LAUGARRENA**

Hitzarmen honen xede den jarduerak datu pertsonalak lagatzea dakarrenez, Mankomunitateak Partzuergoari hiri hondakin solidoen tasa ordaintzen duten zergadunen fitxategi horiek ematen dizkion unean, protokolo bat sinatu beharko da: ENKARTERRIKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEAN DATU PERTSONALAK BABESTEAREN ARLOKO INFORMAZIOA LAGATZEKO PROTOKOLOA, AIPATUTAKO LAGAPENEAN SEGURTASUN NEURRIAK ZEHAZTEKO.

Protokolo hori hitzarmen honi gehituko zaio, Eranskin gisa.

## **BOSGARRENA.**

Emandako zerbitzuaren ordainean, Mankomunitateak bildutako zenbateko osoaren %3 ordainduko du. Zenbateko hori Partzuergoak hiru hilerik behin Mankomunitateari egiten dizkion likidazioetatik kenduko da.

Hitzarmen honen xede den zerbitzu-ematea 2016ko apirilaren 1ean hasiko da (ez lehenago).

## **SEIGARRENA.**

Mankomunitatea osatzen duten udalerrri bat edo batzuk hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzutik edota Mankomunitatetik bertatik banantzeak ez du hitzarmen hau azkenduko, banantze hori gauzatzea erabaki duten udalerrrien kasuan izan ezik.

## **ZAZPIGARRENA.**

Hitzarmen honek iraupen mugagabea izango du; hori horrela, alderdietako edozeinen borondatez suntsitu ahalko da, betiere, beste alderdiari hiru hilabeteko aurrerapenarekin ematen bazaio horren berri.

## **CUARTA**

Dado que la actividad objeto del presente convenio implica la cesión de datos de carácter personal, en el momento de la entrega por la Mancomunidad al Consorcio del fichero que contenga el padrón de contribuyentes de la tasa de recogida de residuos urbanos deberá firmarse el PROTOCOLO DE CESIÓN DE INFORMACIÓN EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL ENTRE LA MANCOMUNIDAD DE MUNICIPIOS DE LAS ENCARTACIONES Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA, PARA CONCRETAR LAS MEDIDAS DE SEGURIDAD EN DICHA CESIÓN.

Dicho Protocolo quedará unido como Anexo al presente convenio.

## **QUINTA.**

Como contraprestación al servicio prestado, la Mancomunidad abonará el tres por ciento de las cantidades recaudadas, que será deducido de las liquidaciones trimestrales que efectúe el Consorcio a la Mancomunidad

La prestación del servicio objeto del presente convenio se iniciará el 1 de abril de 2016 (no antes).

## **SEXTA.**

La separación de uno o varios de los municipios que integran la Mancomunidad del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos prestado por ésta, o de la propia Mancomunidad, no supondrá la finalización del presente convenio, excepto para el/los municipios que hayan optado por la separación

## **SEPTIMA.**

El presente convenio tendrá una duración indefinida, pudiendo ser resuelto por voluntad de cualquiera de las partes, comunicada a la otra con una antelación de tres meses a la fecha de finalización.



### ZORTZIGARRENA.

Alderdiek Bilboko epaitegi eta auzitegien esku jarriko dituzte beren buruak, Hitzarmen hau interpretatzean, betearaztean eta ebaztean sor daitezkeen gatazkak konpontzeko helburuarekin.

Eta xedatutakoari buruzko adostasuna agertzeko, alde biek sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Enkarterriko Udal Mankomunitateko burua /  
Presidenta de la Mancomunidad de municipios de las  
Encartaciones

**ESTHER LASA SEISDEDOS**



### OCTAVA.

Para la resolución de cuantos conflictos pudieran suscitarse en relación con la interpretación, ejecución y resolución del convenio, las partes intervinientes se someten a los Juzgados y Tribunales de Bilbao.

Y en prueba de conformidad con lo establecido, lo firman los comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea / El  
Presidente del Consorcio de Aguas de Bilbao-  
Bizkaia,

**RICARDO BARKALA ZUMELZU**

